

Lander Majuelo Itoiz

## Kant Kant Kant

Azken urteotan elkar deitzen genuen. Berлиндik itzuli eta editore hasi nintzenetik. Nire zenbakia eskatua zuela. *Arratsaldeko laurak aldera ongi dator*ki, esan zitzaidan. Dei denak nahasten zaizkit barnean. Lotsa duin bat zerion haren ahotsari.

Eroria zela, mina zuela, ingresatua egona zela. *Tiene usted un ángel de la guarda muy raro, porque se lo lleva y lo trae de vuelta*, medikuak. Zer liburu argitaratzera gindoazen, kritikak gogoz bilatzen zituela egunkarian, irakurtzea lortu zituen azken poemez bi hitz.

Urrun dira klasean Savonarolari edota Horkheimerri buruz lan laburrak idatzi behar genituenekoak. Eta Kant, beti Kant. Batzuetan alemanez solasten ginen, batzuetan ez geunden ados, batzuetan dena ziren agurrak etxekoentzat. Beti ordena berean. Arreba, ama, izeba, aita.

*Adi Benjaminekin, hor ez da dena literatura, ez marxismoa, Kabala kontuan hartu, ez ahaztu Scholem*. Oraindik ere aurrez aurre elkar ikusiko genuela argitu genion elkarri. Ahots nekatu eta mehe bat telefonoaz bestaldean. Hitzak Arturo Kanpionez, bere Erriberriko ikasketez.

Humboldt Unibertsitatean sartzeko probak egitear jasotako laguntza. Ez duela ia irakurtzen dio, ez dela apur horretaz ostera oroitzen, baina notak hartzen dituela, ez dakiela besterik egiten. Scholem baietz, baina Brecht eta KPDko bere anaia zer. Gutxiegitan deitu nuen.

Ereriko bat, beste operazio bat, zorabio bat. Telefonoz bizi dela. Ni zer moduz. Eskerrak zaintzaile nikaraguarrari. *Se está usted poniendo verde*. Oraindik ere irriz. Historialari alemanen izenak. Wolfgang Wippermann, Jürgen Kocka eta beste.

Zenbat kostatzen zaidan deitzea, egitekoen zerrendetan beti azkena da tatxatzen. Kant, Kant, Kant. Alemaniako Errepublikak Demokratikoaz

artikulu kaxkar bat idatzi zuela bota nion barrezka. ‘Alemaniatik. Berlingo milla ta bat gau gorriak’, *Anaitasuna* aldizkarian.

Lehen deitik tristura eta desira bakarra, bakean eta min gehiegi gabe joan zedila. Herderren *Journal meiner Reise im Jahre 1769* helarazi nion Reclamen edizio merkean, jada elkar ikusiko ez genuela argi zela. Paper zuri batez estali nuen busti ez zedin.

Urteetan eutsi zion oraindik ere. Ezin dela kontzentratu, ezin duela irakurri. Agurrak denei. Arreba, ama, izeba, aita. Alemaniako eguraldia, Alemaniako klaseetako hamabost minutuko menia akademikoa, Alemaniako arrazismoa, Alemaniako loreak oparitzeko ohitura.

Ezkerreko eskua hautsita duela. Euskal juduez solasa. Tuterakoak, Lizarrakoak, Iruñekoak. Baionakoak, noski. Seguran badela judu kale bat. Berea emana duela, lasai dagoela. Lauzpabost aldiz deitzen du egunean Koloniara. *Aurten ere bazoaz Frankfurteko azokara?*

Bere azken liburua azaletik irakurri dudala. Ez dut astirik izan. *Lasai*. Hegel eta Kant jasota ia dena jaso da. Etengabe gutxiesten du dakarren nekea. Berriz ere, berea emana duela, lasai dagoela. Min ematen dit estimuan dudan inor minduta entzuteak.

Sebald argitaratu dugu, ez zuen ezagutzen. *Eta zer moduz Leipzigen?* Aldiro zailagoa zait deitzea. Herderrena jaso duela, Herderrez badi-tuela idatziak. Klasean landu genuen, guk hemeretzi urte genituela. Oraintxe ez dugu buruan zer.

Dei denak nahasten zaizkit barnean. *Alles klar. Macht's gut und bis sehr bald*. Akorduan dut haren ahots meharra, nekez bada ere, ahal beste ulertzen saiatzen. Galderak eginez munduari, agur eginez munduari.